

Scroll

Geure existentzia erabat baldintzatu duen ekintza. Hilketen inguruan, gerrateen inguruan, bortxaketen inguruan eta beste gai askoren inguruan era normal batean hitz egitea ekarri digu. Ikuskizunen garaian, fake news-en garaian, errealitate faltsuari kateatuta gaude, bizitza pantailetatik ikusita, askatu ezinik. Informazioaren garaian bizi gara, eta internet bidez munduko edozein gertaera ikus dezakegu. Normalean positibotzat hartzen da, baina post-egiaren garaian bizitzeak arazo asko dakartza. Sare sozialekin batera etorri den gizatasunaren galeran, gizarte gaixo batean bizi gara, zeinetan estimuluz inguratuta gauden, eta zeinetan ezin dugun arreta hamar segundo baino gehiago mantendu.

Sareak gure errealitate bihurtu dira baina bertan ikusten duguna ez da errealia. Erakusleihoak dira, eta bertan subjektuak objektu bihurtu dira. Estimuluz bonbardatuta gaude, etengabe zorientasuna bilatzeko asmoz, nahiz eta zorientasun hori hutsik dagoen eta faltsua den. Baina sareez inguratuta egonda, zergatik kostatzen zaigu gero eta gehiago saretzea? Gure kolektibotasun aurkako propaganda plazaratzen zaigulako etengabe, txikiak garenenean, hezkuntza sistemaren aldetik, eta hazten goazen heinean, egituratzen gaituen sistemaren aldetik.

Olatu erreakzionarioak balore zaharkituak inposatzen ditu eta askok galdetzen dute nola gerta daiteke hainbeste pertsonen hori nahi izatea. Nolanahi ere, merkatuaren gizartean daukagun identitate-krisia balore errepresiboekin betetzea ez da lan zaila, eta mugimendu horietako buruzagiek ondo badakite. Ideologia kontserbadoreen jarraitzaile gero eta gehiago aurki ditzakegu, eta gizartearen alderdi horretatik heltzen zaizkigun kritikak anitzak dira. Adibidez, askatasun sexualen kontrako iritziak maiz plazaratzen dituzte. Normatibotasuna era dogmatiko batean jarraitzea dute helburu, eta sexua geure identitatearen alderdi garrantzitsua izanda, bertatik hastea estrategia ona da. Sexua arautzea bada geure burua arautzea, eta horren aurrean, zer erantzun emango dugu olatu erreakzionarioak dakartzan balore zaharkituei? Gerta litzateke horri kritika egiteko saiakeran geure ideien aurkan jotzea?

Askapen sexualaren garai ostea. Harremanak era naturalean izan ahal ditugula suposatzen da eta praktika oso ezberdinak onartuagoak daudela ere. Askotan harreman ugariak izaten dira, eta hau monogamia eta harreman itxien kontrako aldarri moduan har genezake, baina ez al da

hau sexuaren merkaturatzea askapen sexualez mozorrotuta? Kritika sozial ororen moduan, arrazoiketa eta barne-lanketa batekin batera etorri behar da, bestela xedea guztiz galtzen da. Ez al da gorputzen kontsumoa sexu askapena? Narratiba kapitalista jarraitzen dugu desira sexualak kontrol barik asetzen baditugu? Eta ez al doa hori balore eta xede iraultzailearen kontran?

Gai hauek lantzeko plazera eta desiraren inguruan hausnartzea beharrezkoa da. Gaur egun, sufrimendua aldentzearen izenean askotan esaten da ez garela arazoetaz hainbeste arduratu behar, izan ere, positibotasuna bultzatzen duen garaian bizi gara. Antzinako grekoek epikureismoaren inguruko irakurketa okerra dela esango lukete. Plazerraz gozatzeaz eta sufrimendua ekiditeaz hitz egiten da, baina hori arrazionaltasun batekin batera etorri behar da, sufrimendua deuseztatu baino berriro ez sufritzeko onartzen eta ulertzen duena, eta plazer hutsala bilatu baino luzaroan asetu ahal gaituen plazera bilatuko duena. Eta ez genuke egin behar scroll egitearen ondorioz sortutako indiferentziagatik.

Indiferentzia hori ikuskizuna, fetitxismoa, desira eta morboz osatuta dago. Internetean sartzearekin eta pixka bat bilatzearekin nahiko dugu gore web orriak aurkitzeko. Leku horietan ikus daitezkeen bideoak biolentzia handia edota hilketak erakusten dituzte. Dena den, ez gara hain urrun joan behar sadomasokismoaren goraipatzea ikusteko, izan ere, zabaldua dauden praktika sexualak eta industria farmakopornografikoak etengabe bultzatzen dituzte halako portaerak. Baimendu beharko genituzke harreman bortitzak nahiz eta adostuak diren? Ezin dugu ezeztatu pornografia gore dela, bortizkeria plazaratzen baitu une oro. Zer nolako gizarte gaixoak gozaten du bere autosuntsipenaz? Heriotzarekiko ikuskizuna sortzea etikoa da?

Merkaturatzeko sortua dagoen heriotzarekiko ikuskizuna (edo edozein ikuskizun) ez dela etikoa esatea zilegi dela uste dut. Baina nolakoa izango litzateke iritzia ikuskizuna produktu ez bihurtzeko bideratuta badago?

Egoera berdina pornografiara estrapola daiteke. Askapen sexuala eta sexuaren gozatzea zabaltzea iraultzailea izan daiteke. Baina kapitalak egitura hauek bere barnean hartzen baditu eta horien inguruan industria bat eraikitzen badu, jarduera horiek arautu egiten dira eta kutsu iraultzailea galdu. Neoliberalismoak noria batean igo gaitu eta indiferentzia etengabe sentitzen dugu, horren ondoren autosuntsipenera

bideratutako praktika degradanteak aurrera eramaten ditugu eta ezer ez sentitzearen ziurgabetasunari aurre egiteko izan daiteke.

Kilikik esan zuen izenburu berdina duen kantan: “Cada vez siento menos, cada vez siento menos, hace tiempo que no me preocupo”. Eta posmodernitatean bizi dugun distopia nahiko ondo laburtzen du. Pentsa genezake indiferentziaren gorakada dela eta jotzen dugula estimuluengana, baina ez al dugu estimuluengatik sortu bizitzarekiko indiferentzia?

Zenbat eta aurrerago goazen, orduan eta arinagoak gara. Eta ondoriozta dezakeguna da autokontzientziak autodestrukzioa dakarrela. Agian bagara masokistak gero eta kontzienteak garelako. Edota sortzen dizkiguten desirak dira, industria farmakopornografiko kapitalistaren eraginez. Arrakastaren inguruan hitz egiten digute eta sexua eta morboa erabiliz burua propagandaz betetzen digute. Gure burmuinak hainbeste erokeri jasan ezin dituen osasun sistemak sendagaia ematen digu. Eta noski, konponbidea maite dugu, nola ez. “Emaidazu 100 mg sertralina, kapitalismoa jasan ahal izateko”. Edo, “jaietara joan naiz denaz ahazteko”. Edo, “erosketak egitera joanen naiz”. Edo, “ahal dudan guztiakin izango ditut harremanak”. Edo, “mina sortarazten didan zer edo zer egingo dut, ezer ez senti dezadan, edo zer edo zer senti dezadan”. Horrela neure hutsune guztiak beteko ditut eta.

Hori bada kapitalismoaren negozioa, arazoak sortu konponbidea saldu ahal izateko. Ez dakigu zer den egia, gure errealitatea beraiek kontrolatzen dituzten pantaila batzuen barruan sartu baitute. Ez gara gure artean harremantzen, bakoitzak bestearen inguruko irudiek sortutako erantzuna erakusten du. Ikuskizunaren gizartea. Merkatu gero eta arinagoak, eta gizarte gero eta eroago bat. Beraz, nola egin diezaiokegu eten scrolleatzeari?